

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

85/2021 Mozioa, azaroaren 10ekoa, energia-gastuak finantzatzeko gizarte-emergentziazko laguntzei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko azaroaren 10ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

85/2021 Mozioa, azaroaren 10ekoa, energia-gastuak finantzatzeko gizarte-emergentziazko laguntzei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen diote jarrai dezala trantsizio energetikorako politikak lantzen, eta eskaria erdigunean jarriko duen merkatu bat garatzeko arauak diseinatzen, energia garbi, merke eta seguruko hornidura izateko helburuz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote 2022ko aurrekontuetan ezar dezala beharrezkoa den aurrekontu-hornidura gizarte larrialdiko laguntzei estaldura emateko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote 2022ko gizarte larrialdiko laguntzen aginduan energia-gastuen muga finantzagarria handitzeko neurriak ezar daitezela.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 10a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA